

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

3872

*AGINDUA, 2026ko irailaren 3koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, Zerbitzu zuzendaria-
ren aldi baterako ordezkapena xedatzen duena.*

Maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak, Euskal Sektore Publikoarenak, ezartzen du 27. artikuluan goi-kargu bat hutsik geratuz gero, titularra aldi batez ordeztua ahal izango dela bere eginkizune-
tan, sailaren egitura organikoari buruzko dekretuan zehazten den eran.

Urriaren 29ko 313/2024 Dekretuak, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzio-
nala ezartzen duenak, honako hau xedatzen du lehenengo xedapen gehigarrian («Ordezkapenen
araubidea»): «Ogasun eta Finantza Saileko organoetako titularren karguak hutsik badaude edo
titularrak absente edo gaixorik badaude, honako hauek beteko dituzte haien eskumenak, bal-
din eta egoera hori gertatu baino lehen eskumenak eskuordetu ez baziren: hierarkian goragoko
kargua duten agintariek, eta, era berean, kargu hori hutsik badago edo titular hori absente edo
gaixorik badago, hurrengo nagusi hierarkikoak, eta horrela ondoz ondo, xedapen edo ebazpen
espresu batek aurkakoa agindu ezean».

Dekretu beraren 2.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, Zerbitzu Zuzendaritza sailburuaren
mende dago zuzenean eta hierarkikoki.

Hori horrela izanik, ordea, administrazio-eraginkortasuneko arrazoiengatik eta espedienteen
geldiarazpenik gerta ez dadin, komenigarri iritzi da zerbitzu-zuzendaria gaixorik egon bitartean
haren eskumenak Zerga Administrazioko zuzendariari esleitzea, indarrean dagoen legerian eza-
rritako mugapenak begiratzuz.

Azaldutakoagatik, eta urriaren 29ko 313/2024 Dekretuak eta Jaurlaritzaren Legeari buruzko
ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 26.4 artikuluan xedatutakoari helduz,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.— Zerbitzu-zuzendaria gaixorik egon bitartean, haren eskumenen egikaritza Zerga
Administrazioko zuzendariari eskuordetzea, 2026ko irailaren 15etik Zerbitzu-zuzendaria lanpos-
tura itzultzen den egunera arte eta indarrean dagoen legerian ezarritako mugapenak begiratzuz.

Bigarrena.— Zerga Administrazioko zuzendariak eskuordetu zaizkion eskumenak baliatuz ema-
ten dituen ebazpen eta administrazio-egintzetan espresuki adieraziko da egoera, eta ebazpen eta
administrazio-egintza horiek organo eskuordetza-emaileak emandakotzat joko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 3a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.